

## 4 GUNEA. MEÑAKOXEKO PILLOW-LABAK. PUNTO 4. PILLOW-LAVAS DE MEÑACOX

### BALORAZIOA

*Interesa: Didaktikoa eta zientifikoa.*

*Kategoria: Lokala.*



*Kontserbazioa: Ona.*

*Antzeko beste gune batzuk:*

*Larrauri-Gernika-Mendata lerraduran.*

*Irispidea: Algorta-Plentzia errepidez,*

*Meñakoxeko harrizko hondartzara zuzenduz.*



### VALORACION

Interés: Didáctico y científico.

Categoría: Local.

Conservación: Buena.

Otros puntos semejantes: En la alineación Larrauri-Gernika-Mendata.

Accesos: Por la carretera de Algorta-Plentzia, dirigiéndose hacia la playa pedregosa de Meñacox.




Meñakoxeko pillow-labak Goi-Kretazikoko flysch-ean intrusio eran aurkitzen dira, lurroskolaren haustura eragin zuen distentsio-prozesu haren baitan. Prozesu hark ia Goi-Kretaziko osoa iraun zuen. Kuxin-laba izena (ingelesezko pillow-lava) beren itxuragatik daukate, esfera handi zapalduen tankerakoak bait dira. Forma hauek urpeko bolkan-jaurtiketan sortzen dira. Meñakoxeko pillow-labak Goi-Kretazikoko material hareharritsu eta margatsuren artean daude, egoera bertikalean eta 15 m inguruko horma bat eratuz; horma hau itsasoan sartzen da barra baten eran. Laba-isuriaren oina ekialdean dago eta hango pillow-labek azal laua daukate. Mendebaldean labak, zepa eta errautsezko geruza batez estalita daude.

Hurbiletik aztertuta, pillow-laba hauek 1-3 m-ko diametroa dute. Kolore berde ilunekoak dira, eta basaltoa solidotzean geratu ziren gas-burbuletatik sortutako bakuola kontaezinak dauzkate, kaltzita zuriz beteak. Beha daitezke baita pitzatu-sistema erradialak ere, harriaren hozte eta erretrakzioaren ondoriozkoak.

Pillow-labak basalto-harri batzuk dira, sakonera handiko itsaspean, pitzaduretatik zehar gertatzen diren erupzioetan estrusioz sortuak. Pitzadura edo arraila batetik ateratzen diren labei hoztu egiten zaie urarekin ukipenean duten azala, beren gaineko beira-geruza mehea sortuz. Malden oinean pilatzen dira, eta horregatik normalean gainalde ganbila eta behealde ahurra eduki ohi dute. Hondartzaren mendebaldean aurkitzen dira eta itsasbeheran bakarrik bisita daitezke.

PILLOW-LABA SATZUEN  
ISURIAREN EBAKI GEOLOGIKOA  
(ZONAZIOA, DIAKLASATUA ETA BEREN  
ARTEKO DOIKUNTZA AZALDUZ)

- A) Material bulkanoklastikoa.  
B) Harri karbonatatuaren zatiak.  
C) Kaltzita.



CORTE GEOLOGICO DE UNA  
COLADA DE PILLOW-LAVAS  
(MOSTRANDO LA ZONACION, DIAKLASADO  
Y EL ADAPTAMIENTO DE UNAS SOBRE  
OTRAS)

- A) Material vulcanoclástico.  
B) Fragmentos rocas carbonatadas.  
C) Calcita.

Las pillow-lavas de Meñacox aparecen intruyendo en el flysch del Cretácico Superior, englobadas en un proceso distensivo que favoreció la fracturación de la corteza terrestre. Dicho fenómeno distensivo ocupó prácticamente todo el Cretácico Superior.

En este lugar, aparece una colada de lavas almohadilladas (pillow-lavas en inglés), llamadas así por su aspecto en forma de grandes esferas aplastadas, formadas en las erupciones volcánicas que tienen lugar bajo el agua. Aparecen entre materiales areniscosos y margosos, en posición vertical, formando un muro de unos 15 m de altura que se interna en el mar dando lugar a una restinga. La base de la colada volcánica está en el lado E, donde las pillow-lavas muestran una superficie plana. En el lado W, las lavas están cubiertas por una capa de escorias y cenizas.

Examinadas de cerca, presentan un diámetro que oscila entre 1 m y 3 m. El color es verde oscuro, con multitud de vacuolas rellenas de calcita blanca. También se observan grietas radiales, debidas al enfriamiento y retracción de la roca.

Las pillow-lavas son basaltos que extruyen en erupciones submarinas fisurales que tienen lugar a profundidades notables. Las lavas que fluyen a través de una fisura o grieta se enfrían superficialmente al contacto con el agua, formando una delgada capa vítrea que las recubre, acumulándose al pie de la pendiente volcánica.

Están situadas en el flanco W de la playa y sólo pueden visitarse en bajamar.